

ARRASATE

P R E S S

1997ko
uztailak 18
372. zenb.

Elkartasun bidaiak

Opor garaia aprobetxatu
lurralde behartsuei ahal
den neurrian laguntzeko

Katu-oinetan eskaintza berezia



ARRASATE
KIROLAK

Kontzeziño kalea, 8 • ARRASATE • Tel: 79 46 12 / 77 12 47



Erabilera

Balio anitzeko eskalada. Bereziki ertz tekniko, pitzadura, atxikidura lanak eta ibilaldi luzeak.

Eraiketa

Erantsi-ezarritako sistema. Orkoi erdi malgua asimetria txiki batekin.

Tankera

Serraje larruzko oinetakoa lonazko forru osoarekin. Forru bikoitza arko inguruan.

Kolorea

Burdeos gorria banda batekin, axubeta eta pespunte urdinekin.

Goma

Boreal Fusion S-2 zolan eta alboetan.
Zola: 5 mm.ko sendoera.

As. 7.550 pta.

Erabilera

Kirol eta lehiaketa eskalada.

Eraiketa

"Guante" sistema. Orkoi erdi konbexoa, erdi mailako asimetria.

Tankera

Serraje larruzko oinetakoa, lonazko forru osoarekin, oinarri-arkoan forru bikoitzarekin indartua.

Kolorea

Beltza, marra moreekin.

Goma

Boreal Fusion S-2 zolan eta alboetan.
Zola: 4,2 mm.ko sendoera.



Vector. 7.900 pta.

Erabilera

Kirol eskalada. Berotze ariketetarako eta entrenamendurako egokiena.

Eraiketa

"Guante" sistema. Orkoi erdi konbexoa eta erdi mailako asimetria.

Tankera

Serraje larruzko oinetakoa, forru gabekoa.

Kolorea

Malba, belkrodun zinta beltz batekin.

Goma

Boreal Fusion S-2 zolan eta alboetan.
Zola: 4,2 mm.ko sendoera.



Bamba. 6.600 pta.

Erabilera

Kirol eta lehiaketa eskalada.

Eraiketa

"Guante" sistema. Konbexotasun gutxiko orkoi, asimetria txikiarekin.

Tankera

Serraje larruzko oinetakoa, forru gabekoa, kanpoaldetik nylon-ezko bi bandez indartuta arkoan eta alboan.

Kolorea

Beltza, marra larrosekin.

Goma

Boreal Fusion S-2 zolan eta alboetan.
Zola: 4,2 mm.ko sendoera.



Laser. 8.600 pta.

Erabilera

Kirol eskalada, lehiaketa eta entrenamendua.

Eraiketa

"Guante" sistema. Betiko orkoi malgua, asimetria txiki batekin.

Tankera

Serraje larruzko oinetakoa, forru gabekoa. Itxiera erdiko elastiko sistemarekin, larruzko tiradorearekin babestuta janzteko errazteko.

Kolorea

Berdea.

Goma

Boreal Fusion S-2 zolan eta alboetan.
Zola: 4,2 mm.ko sendoera.



Ninja. 6.425 pta.

Erabilera

Kirol eta lehiaketa eskalada.

Eraiketa

"Guante" sistema. Orkoi super konbexoa asimetria handiarekin.

Tankera

Serraje larruzko oinetakoa, forru gabekoa, alboetako zintan "lotura-oinarri" sistemarekin.

Kolorea

Larua, axubeta eta banda beltzekin.

Goma

Boreal Fusion S-2 zolan eta alboetan.
Zola: 4,2 mm.ko sendoera.



Stinger. 7.900 pta.

Erabilera

Indoor eskalada, gimnasioak eta entrenamendua. Kirol eskalada, boulder...

Eraiketa

"Guante" sistema. Orkoi konbexoa, asimetria handiarekin.

Tankera

Serraje larruzko oinetakoa, forru gabekoa. Itxiera erdiko elastiko sistemarekin (larruz babestua) alboetan bi txiki.

Kolorea

Gorria / Urdin iluna.

Goma

Fusion S-G grisa edo Fusion S-2 beltza.
Zola: 4,2 mm.ko sendoera.



Indo. 6.200 pta.

KIROL BAKOITZERAKO ERANTZUN BAT.

Gautxori krisia

Herriko zaharrek gogoratzen digutenez San Juanetako hirugarren egunean egoten zen girorik onena aintzina. Azken urteetan ordea, hirugarreneko gaua izaten da nabarmen hotzena. Aurten gainera, hoztasuna aurreko gauegara ere hedatu da.



Ander Etxeberria

Alde batean, nagusienak ez ei dira jai zale, hainbat alditan entzuten baitzaie jaiak gazteendako direla, gaua bereziki (gero agian San Ferminetan ikusten ditugu ez oso presentable).

Beste muturrean, gaztetxoek ondo ikasia dute hori; aldizkari honetako inkestan hiru aste dela azaltzen zutenaz, aurtengo festak aurreko

“Hemen dago gakoa, jendeak festen irudi erakargarriagoa izatea alegia”

urtekoak baino hobekoak izan dira, hein handi batean beranduago etxeratzeko baimena lortu dutelako. Beraz, gaupasak egiteko adinera iritsi arte behintzat baldintzarik gabeko jarraitzaile izango dira.

Tartean, gazteak izan eta bere burua gaztetzat dutenak daude. Hauek dira batez ere afalostetik goizalderaino

kalean dabiltzanak, eta baita egunean zehar. Baina, batetik aste osoan lanera joan behar ez izatea eta bestetik San Juanen fama dela eta, gero eta gehiago dira, langileak gehienbat, lanik gabeko

egun horiek kanpora joateko egun bihurtzen dituztenak. Eta zaindarien jai ei uko egiten diete. Izan ere, herriko jaien ierarkia irudikari bat egina ei dago (aurrekon-

tuekin edo egitarauekin inolako zerikusirik ez duena) zeinen arabera Santamasak edo Maritxu San Juanak baino hobekoak baitira. Hemen dago gakoa, jendeak festen irudi erakargarriagoa izatea alegia. Auskalo nola.

Bestalde, ekaina bukaerako egun horietan Mondragoen bertan daudela neska-mutil askori estudiantzea tokatzen zaie azterketak dituztelako edo azterketen atarian daudelako. Orduan -ondorengo lerroko erdi txantxetan erdi serio doaz-, udaletxetik soldadutza egiten ari direnak (lau katu, eta gero eta gutxiago) jaietan libratzeko kuarteletara gutun bat bidaltzen den bezala, eskola edo unibertsitateetara azterketak ekainak 23rako bukatzeko eskaria igor daiteke. Eskola Politeknikotik has daiteke, hemengo izanik azterketak justu San Juan ostean egin ohi dituelako, besteak beste kanpotarrei bentaja emanez zeharka bada ere.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Marian Porcel. **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26). **Diseinua:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artoia, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Fidel Berebizar, Bixente Pasogoa, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Virginia Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Getxo Koop. E. (Zubillaga. Ohati). **ARRASATE PRESS**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Golo Arana.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

372. zenbaki honetan

1997ko uztailaren 18an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen.....	10/11	Kulturaren txokoa.....	20/21
Irakurlea idazle.....	6	Txutxumutxuak.....	12/13	Azoka plaza.....	22/23
Inkesta.....	7	Asteko gaia.....	15/17	Denborapasak.....	24
Euren ikuspuntutik.....	8	Kirolak jokoan.....	18/19	30 galderatan.....	25

Ikuspegia
Ander Etxeberria.....3
Kirolak jokoan
Mondraren aurrendenbaldia.....19
Kulturaren txokoa
Arrasate Lehiaketak 97.....20
30 galderetan
Jose Ramon Arkauz.....25
Asteko gaia
Elkartasun bidaiak.....15/17



Hegoaldeko lurraldeen egoerak jakin mina sortzen du askorengan. Brigadista batekin, Mugarik Gabeko Injeneru batekin eta misiolari joandako batekin berba egin dugu horretaz.

18

ostirala

■ ZINEA

Solo los tontos se enamoran. Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ KONTZERTUA ATERPEN

The Old Boys Quintet taldearen kontzertua gaueko, 11etan Aterpe tabernan.

■ SANTAMAINAKO JAIK

Arratsaldeko 3.30etan xake eta ping pong txapelketak alkatetzan. 5etan marrazki lehiaketa Makatzenan. 6etan umeendako txokolatada. 7etan banderen igoera jaien hasiera adierazteko eta buruhandiak. 7.30etan V. futbolin txapelketa Piscis tabernan. Gaueko 10etan Tute txapelketa Toki Argi tabernan eta 11etan Moby Dick taldearekin dantzaldia.

■ PORTASOLEKO JAIK

Arratsaldeko 6etan erraldoiak eta buruhandiek kalejira. 7etan poteo herrikoa. Gaueko 11etan *Ludi Berri* taldearekin camp dantzaldia Bizkaia kaleko aparkalekuan. Ordu berean lehen kontzertu elektronikoa *Profesor Angel Dust, Panko* eta *Feelaction* taldeekin. Sun's Door disko txozna zabalduko da gaueko 11etan.

19

larunbata

■ ZINEA

Solo los tontos se enamoran. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ SANTAMAINAKO JAIK JUBILATUEN EGUNA

Goizeko 10etan Bolo palma txapelketa. 11etan umeendako jokoak. 1etan meza La Merced elizan. Arratsaldeko 5etan pilota partiduak. 6.30etan herri jaialdia Mentu plazan. 8.30etan antzerkia *Traperos del rio* taldearekin. Gaueko 10etan rock kontzertua Makatzenako frontoian. 11etan Carisma orkestrarekin dantzaldia

■ PORTASOLEKO JAIK

Eguerdiko 12etan soka-muturra. Arratsaldeko 3etan mus txapelketa. 4etan umeentzat jolasak Ortzadar taldearekin. 5.30etan umeentzat txokolatada. 7etan erraldoiak eta buruhandiak. 8etan soka-muturra. Gaueko 11etan *Hermanas Ross y orquesta* taldearekin dantzaldia.

20

igandea

■ ZINEA

Turbulence. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Ibilbidea: Arrasate, Bergara, Deba, Mutriku, Ondarroatza, Lekeitio, Ereño gaina, Arteaga, Gernika, Zornotza, Durango eta Arrasate, 127 kilometro. Irteera goizeko 8etan Monterrondik.

■ SANTAMAINAKO JAIK

Goizeko 10etan Bolo palma txapelketa. 10.30etan txirrindulari lasterketa. 12etan meza La Merced elizan. Ordu berean aerobic erakusketa Agerre plazan. 12.30etan paela lehiaketa. 4etan mus txapelketa eta umeendako jokoak. 5etan igel jokoak Egipe elkartearen. 6.30etan erregio desberdinetako produktoen dastaketa. 7.30etan erraldoi eta buruhandiak. Gaueko 10etan *Carisma* taldearen dantzaldia.

■ MAALA ERREBALEKO JAIK

Eguerdiko 12.30etan Errebalean hil diren bizilagunen aldeko meza San Frantzisko elizan. Ondoren jubilatuentzat luntxa.

■ BIZIKLETA MARTXA DEBARA

Eki eta Eguzki taldeek antolatuta bizikleta martxa Debara. Arrasatetik irteera goizeko 10etan Portaloitik.

■ PORTASOLEKO JAIK

Goizeko 11.30etan meza. 12etan umeendako marrazki lehiaketa eta 3etan xake txapelketa gazteentzat.

21

astelehena

■ ZINEA

Turbulence. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

Lore
Lurrindegia
Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

OSTARKU
DISKOTEKA
Ezkontza osteko jairako eta egun bereziak ospatzeko diskoteka osoa aloka dezakezu eta dohain!
Zatoz eta ondo pasa!
Tel.: 77 03 17

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 79 91 84
ARETXABALETA

22

asteartea

■ **ZINEA**

Turbulence. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ **MAALA ERREBALEKO JAIK**

Goizeko 8etan etxaflero jaurtiketa. Arratsaldeko 4etan ume jolasak eta txokolatada. 7etan trikitixa. 9etan afaria estradetan. Gaueko 10.30etan musika eta 11etan suzko errubarak.

23

asteazkena

■ **DANTZA EMANALDIA**

Kubako dantza talde baten emanaldia Monterronen gaueko 10.30etan. Sarrera: 800 pta. eta gazte txartelarekin 600 pta.

■ **ITURBIDEKO UDAKO EKINTZAK**

Tute txapelketa arratsaldeko 6etan bertan daudenentzat.

■ **TARTEKO ETA TERMALISMO PROGRAMA**

Gizartekintzak antolatutako Tarteko eta Termalismo programen udazkeneko txandarako izena emateko epea zabalik dago. Tarteko programaren kasuan epea abuztuaren 14a arte luzatuko da urrian parte hartu nahi dutenentzat, eta irailaren 26ra arte azaroan joango direnentzat. Termalismo programaren epea irailaren 12an bukatuko da. Eskaera Bergarako Gizarte Zentruan egin behar da astelehenetan, asteazkenetan eta ostegunetan goizeko 10etatik ordubata arte. Tel: 76 21 40. Informazio gehiagorako Arrasateko udaletxeko Gizarte Zerbitzura zuzendu.

■ **AHTren AURKAKO AKANPADA**

AHTren aurkako akanpada uztailaren 18tik 27ra arte lurretan. Ekintza desberdinak antolatuta dituzte egun horietan egiteko. Asteartean 22an, akanpadatik Udalatxera ibilaldia egingo da goizeko 9etan.

■ **JUBILATUEN ERAKUSKETA SANTAMAINAN**

Uztailaren 18, 19 eta 20an Santamainako jubilatuek egindako eskulanean erakusketa egongo da ikusgai lokalean bertan. Ordutegia ostiralean arratsaldeko 6etatik 8ak arte. Larunbata eta igandean 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte.

24

osteguna

■ **ZINE KLUBA**

Los Asesinos de mama, Monterronen gaueko 10.30etan. Eguraldi txarra eginez gero, Amaia antzokian. Sarrera: 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta.

■ **ITURBIDEKO UDAKO EKINTZAK**

Dantzaldia arratsaldeko 6etan Iturbide egoitzan.



24 ORDU FUTBITOA ITURRIPEN

Zapatu honetan uztailak 19, 24 orduko futbito maratona egingo da Iturripen. Eguerdiko 12etan hasi eta domekako 12ak arte makina bat neurketa jokatu da. Azken partiduan finala egongo da jokoan.

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Pavimentos AGR
EGURREZKO AROZTEGIA
Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almagazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tel.: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

Memesa
79 42 22

ASTE GAZTEA IRAILEAN

Dagoeneko jakingo duzuen bezala Hitza eta Ekintza gazte kolektibo eta mugimenduen arteko komunikazioa suspertzeko talde bat den heinean, honako proposamena luzatzen dizuegu: komunikabideek eta mass-media mailan, gazteei jartzen zaizkigun ezaugarri eta prototipo gezurtiak salatzea eta aldi berean gure benetako indarra eta izaera erakustea, irailaren azkenengo astean herrian "Aste Gazte" bat burutuz.

Horretarako gazte zein kultura mailan mugitzen den jende guztiari gonbidatzen dizuegu, zuen kabuz funtzionatzen duzuen hainbat eta hainbat taldek zuen ekintza, lan eta ideiak bertan kaleratu ditzazuen. Aste Gazte horren baitan mahainguruak, kalejirak, ikuskizuna, erakusketak, informazio mahaiak eta talde bakoitzari bururatzen zaion edozer burutu ahal izango delarik.

Azpimarratu nahi genuke, Hitza eta Ekintzakoek honelako zerbait egitearen beharra ikusten dugula, gazteen arazoak salatzeke, ekimenak ezagutarazteke, dinamika bateratuak bultzatzeko,

eta abar. Gazteok dagoenari etengabe kritika egiteaz gain, indarrak batu eta esparru kolektiboak lantzeari ekin behar diogu, inkonformismoa landuz.

Guzti hau burutu eta lan du ahal izatea guztion ezku dagoenez, uztailaren 24an arratsaldeko 5etan Hitza eta Ekintzako lokalean (ATB zaharrean) burutuko den bilerara deitzen zaituztegu, zuen proposamenekin batera, denon artean aste horretako ekitaldi eta planteamenduak eztabaidatu eta aurrikusteko.

*Arrasateko
Hitza eta Ekintza*

BIZIKLETA MARTXA DEBARA

Eguzki eta EKI, beste urte batzuetan bezala eta izaera sinbolikoarekin DEBArA joango gara errekararen berreskuraketa integrala eskatzeko. Martxa uztailaren 20an, igandea, izango da. Arrasaten, Portaloitik goizeko 10etan.

Aurtengo martxa hau 2 gertakaritzan oinarritzen da: lasater hasiko diren saneamendu lanetan eta Donostian gertatu berri diren uholdeetan.

Era horretako gertakizunek, hala nola, Biescas-ekoak eta izan berri diren uholdeek,

gauzak beren lekuan jartzen dituzte berriro. Horrela, Maturanak, Lakuako Gobernuaren Garraio eta Herri Lan Sailburuak, uholde horien inguruan egin zituen adierazpenak ziniz moz beteta zeuden. Ondorio moduan hirigile eta udalei errieta egiten zien zera esanez: "Kontuan izan behar da, terrena aprobetxatzen saiatuz gero eta errekak estaltzen badira, era honetako fenomenoekin aurki gaitzkeela".

Azken urteetan esan dugu eta esaten jarraitzen dugu ibai eta erreketan egindako babeslanen helburua urak arin hustutzea eta eragindako lurrazte eta desalojatzea izan dela. Bereizi gabe teknika astunak erabiltzeak eta horren eragin suntsitzaileak ibaien degradazioa ekarri dute.

Ibaiak berritzeak honako helburu hauek izan behar ditu: ibaiak urik handienak hustutzea, arroaren burualdearen lur-galera mugatzea, uren kalitatea eta kantitatea gordetzea, ingurune urtarraren biologi potentziala zaintzea eta ibaiak dituen erabilera guztiak ahalbidetzea.

Ibaien tratamendu-eredu horrek emaitza hobek eta iraunkoragoak emango litzu-

ke, gure inguru natural kalte-tu eta mehatxatuenetakoa den hau zaindu eta ura erabiltzeko behar diren kalitate eta kantitate-egoera onean izaten ahalginduz gero.

Berreskurapenari dago-kionez, planak ibaiak kanalizatzeko eta garbitzeko beharrezko azpiegiturak jasotzen ditu, ibaien gaur egungo egoerari irtenbide bat emateko asmoz.

Hondakin-urak garbitzeko araztegiak hodiaren amaierako sistemak dira, hau da, metodo horrek isurki likidoak prozesuaren amaieran tratatzen ditu, arauk baimentzen duten kopurua gaintzen duten elementu polutzaileak lokatze-eran bildu eta ubidera fase likido garbia itzulita.

Ulertuko duzuen, hori ez da prebentzioa. Beraz, beharrezkoa da arazoei sustraietatik aurre egitea, elementu polutzaileen jatorria eta arazketa-ekariak poliki poliki murrizteko irizpideak erabilita, inguruko poluzio toxikoa prebenitzeko helburuarekin.

Ibaiak bizi-iturri izateari uzten dio gizakiok izaera hori ukatzen diogunean. Onar dezagun.

Jabier Abalde



Lizarralde Kirolakek jarritako bizikleta.

TOUR PORRA MUNDIALA!

Maillot bat egunero eta sailkapen orokorraren irabazlearentzat argazkian duzuen mendiko bizikleta eder hori, horretxek aurten ATBk eta Arrasate Pressek **Lizarralde Kirolak** dendaren laguntzarekin ematen ari garen sariak. Dagoeneko lehen etapetakoak banatu ditugu. Orain arteko irabazleak honako hauek:

- Julian Vicente.
- Milagros Aperribai.
- Josu Azkarate.
- Itsasne Landa.
- Pilar Velez de Mendizabal.
- E. Madinabeitia.
- Itsasne Landa.

Datorren astean sari gehiago. Adi egon egunero ATBko pantailletara.

Denboraz antolatzen dituzu oporrak?



Kontxi Valdes
Langilea
(45 urte)

Beti toki berdinean pasatzen ditut oporrak, Errioxan. Senarra hangoa da eta ezkondu nintzenetik hara joaten naiz.



Gorka Agudo
Ikaslea
(18 urte)

Gurasoekin joaten naiz, baina azken astean erabakitzen dugu nora joan. Hala ere ez dugu asko pentsatzen, gehienetan toki berdinerara joaten gara eta.



Ana Mugerza
Langilea
(35 urte)

Oraindik ez dakit zeregin-godudan oporretan. Ume txiki bat dudanez oraingo ez dut ezer erabaki.



Faustino Blanco
Langilea
(33 urte)

Hilabete bat edo bi lehenago antolatzen ditut. Hondartzara joaten naiz, apartamentu batera.




Mari Karmen Mancebo
Etxekoandrea
(39 urte)

Azken momentuan erabakitzen dugu. Orain arte horrela egin eta zortea izan dugu. Nora joan erabaki, eta ondoren bidaia agentziara joaten gara.




Jabier Guijarro
Langilea
(31 urte)

Ia beti azken momentuan erabakitzen dugu. Hala ere aurten badakigu nora joango garen.



Ainhoa Margin
Ikaslea
(15 urte)

Urtero Burgosko herri batera joaten gara, eta aurten ere hara joango garela uste dut. Gure aldetik joaten gara.




Jose German
Langilea
(37 urte)

Azken egunetan pentsatzen dugu zer egin. Azken astean hitz egiten dugu etxean horri buruz.

Sipi Sipi
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

IRATI TABERNA
Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE



Gtze
mobiliario y
decoracion

- PROIEKTUAK
- BARNE-DISEINUA
- OBRAK



Ferrerias, 17
(Alde Zaharra)
Tel. eta faxa: 79 03 17
ARRASATE

astea bi hitzetan

■ **Atxilotuek torturak salatu**

Amnistiaren aldeko Batzordekoek adierazi dutenez, Ortega Lara askatzeko operazioan atxilotutako bi lagunek torturak salatu dituzte. Josu Uribetxebarria arrasatearrak, eta Xabier Ugarte oñatiarrak egin dituzte salaketak inkomunikazio egoeratik irten ondoren. Arrasatearraren abokatuak esan duenez, San Josepera eraman eta gogor kolpatu zuten Uribetxebarria guardia zibilek.

■ **Jende ugari antzerkia ikustera**

Herriko plazan eskaini zuen Ekekei taldeak Fumantxu Gernikako arbolaren gerizpean antzezlan, eta jende asko hurbildu zen obra ikustera. Herriko plaza antzoki bihurtu eta eguraldi ona lagun, gustora egon ziren ikusleak.

■ **Gizona lan istripuz hil Arrasaten**

Astelehen goizean 36 urteko bilbotar bat hil zen Arrasaten lan istripuz. Uribe

auzoan Iberdrolak duen ekipamendu elektrikoan lanean zebilela, 220 voltioko deskarga elektrikoa jaso eta hil egin zen. Kontrolerako koadroak aldatzen zebilela jaso zuen deskarga elektrikoa. Raul Diez deitzen zen hildakoa.

Bilbotarra ez zen berehala hil, baina bertara joandako adituek ezin izan zuten bere bizia salbatu. Uribe auzoko ekipamendu horretatik argindarra banatzen da Erguingo eta San Andresko etxebizitara eta enpresetara.



HB baztertzeko hiru proposamen zehatz (...) 2) HBrekin dauden herri mailako akordio denak bertan behera uztea, bai Arrasate moduko tokietan, laguntza demokratikoaz gobernatzen duenean, bai Bermeoko udalaren kasuetan bezala, beste batzuk agintzen duten herri gobernuan parte hartzen duelarik”.

EL MUNDO

Editoriala
1997-7-14



Arrasateko zentsura mozioarena ez dugu azken gertakarien ondorio bero modura hartu, perspektiba eta estrategia askoz ere lehenagotik dator”.

JOSEBA EGIBAR

Egin
1997-7-17



ABIALDIAN MARTXA ARRASATEN

Astelehen arratsaldean heldu zen herrira Abialdian, askatasunaren aldeko martxa. Durangotik iritsi ziren martxa kideak, eta euren itzaroten zeuden arrasatearrek Muxibarren egin zieten ongi etorria. Erdialdea zeharkatu ondoren, herriko plazara joan eta bertan hasi zen ekintza politikoa.

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

Erdiko kale. 79 19 37

Ferrerias. 79 87 62

Kazetari lanpostua ARKOan

ARKOk ARRASATE PRESSen eta ATBn egun osoz lan egingo duen kazetari bat behar du. Urtebeteko lan kontratua eskaintzen da, luzagarria.

Interesatuek kurrikuluma bidali uztaila bukatu baino lehen honako helbide honetara:

ARKO, Otalora Lizentziatua 31 • 20.500 Arrasate.
Hautatze frogak irailaren lehen astean egingo dira.

Informazio zabalagoa behar izanez gero, deitu (943) 77 05 65 telefono zenbakira.

ARKO
Arrasate Komunikabideak

Blanco Garridoren hilketaren hilketa eta zentsura mozioa

Mobilizazio ugari eta Jose Mari Loiti eragin ditu Arrasaten PPko zinegotza

Hilketak salatzen orain arte egin diren kontzentrazioekin konparatuz, jende gehiagok parte hartu du egunotan egin direnetan. Erreakzio soziala nabarmena izan da, baina garrantzitsuagoa eragin politikoa.

Ajuria Eneako Itunak HB isolatzeko erabakia hartu bezain laster, alderdi horri Arrasateko alkatezta kentzearen alde azaldu zen hainbat alderdi, eta astean dena lotu dute zentsura mozioa aurkeztu eta Arrasateko alkate berria izan dezan: EAJko Jose Mari Loiti jarriko dute alkate.

Asteazkenean bilera egin zuten EAJren, PSE-EEren eta EAren Gipuzkoako exekutibek, eta hirurek Xabier Zubizarreta alkatezkatik kentzea erabaki zuten. Horretarako, gaur eguerdian aurkeztu behar zuten zentsura mozioa Arrasateko Udaletxean. Behin zentsura mozioa aurkeztuta, alkateak 15 eguneko epea izango du plenoa deitzeko, eta udalbatza horretan onartu beharko da zentsura mozioa.

Nahiz eta lerro hauek idazterako orduan zentsura mozioa aurkezteko behar diren 11 zinegotzien sinadurak baiezatu barik egon, egun bat lehenago ziurtzat jotzen zen oraingoan zentsura mozioa aurrera aterako dela. PSE-EE, PP eta



Hilketaren aurka dagoela adierazi nahi izan zuten hainbat arrasatearrek, eta horretarako, herriko plazan egin ziren bilkuretan parte hartu zuten. Lehenengo kontzentrazio isila zapatuan egin zen. Domekan egin zenera, berriz, askoz ere jende gehiago hurbildu zen. Ostean, zinegotziak aurrean zirela mani-

festaldi jendetsua abiatu zen herriko kaleetan barrena. Azken bilkura astelehen arratsaldean egin zen Lau Bide plazan, eta azken horrekin ere arrasatear askok egin zuten bat. Ezker abertzalearen inguruko taberna batzuetan bestalde, ugari izan dira telefonoz jasotako mehatxuak.

EAJko zinegotzien baiezkoa bazegoen, baina atzo arratsaldean EAJko juntak bilera egin behar zuten exekutibaren erabakia aztertzeko. Hala ere, exekutibak hartu du zentsura mozioa aurrera eramateko erabakia, eta hori betearaztea eskatuko zieten Arrasateko alderdikideei. Ezker Batuak ere bildu dira astean, eta atzo jakinarazi behar zioten Madrazori zein erabaki hartu duten. Seguruen EBkoek ez dute mozioaren alde egingo. PPkoak, berriz, alde bozkatuko du.



Bahiketa gaitzesteko, ostiral eguerdian herriko plazan bildu ziren EAJko, EAJko, PSE-EEko, EBko eta PPko zinegotziak. Arratsaldean hasi zen plenoa, berriz, bertan behera geratu zen. Plenoan mozio bat onartu zen, bahitua baldintzarik gabe aske uzteko eskatuz.

Alkatea bihurtzeko aukera aren hilketak




Astelehen goizean urgen-tziako plenoa egin zen, eta hitz gogorak esan ziren HB eta alderdi horretako zinegotzien kontra. PPko

zinegotziak alkatea (oporetan zegoen) plenoan ez egotea kritikatu, eta beste pleno batzuetan negarrez joaten diren presoan amak

faltan botatzen zituela azpimarratu zuen. PSE-EEko Jimenok lotsarik ez edukitzea aurpegiaratu zien HBkoiei. "Arrasatek zorigaitz bat du, eta hori zuek zarete" bota zien Jimenok HBko zinegotziei. Blanco Garridoren hilketaren kondanatzeaz gain, plenoak (HBk kenduta) bat egin zuen Ajuria Eneako Hitzarmenak kalera idatziarekin.

HBko zinegotziek, berriz, idatzi bat irakurri zuten. Torturen aurrean jarrera bera ez erakustea salatzen idatzian. Alderdiak eta komunikabideak HB kriminalizatzen ari direla ere esan zen. Arexolaleibak irakurri zuenez, bere alderdiak ahalginak egin ditu PPko zinegotziaren bahiketa ondo buka zedin, baina beti ere presoan eskubideak kontuan izanik.



Arrasaten ere ordubeteko lanuzteak egin ziren astelehenan. Hainbat dendarik, gainera, itxi egin zuten denda eta herriko plazan egin zen bilkuran parte hartzera joan ziren. Herriko enpresa askotan ere lanuzteak egin ziren. Argazkian Fagor Garagartzako langile batzuk lanuztea egiten.

Barruko igerilekua konpondu

Asteleheneko gobernu batzordean obrak adjudikatu ziren barruko igerilekuan obrak egiteko. Repair izeneko enpresak egingo ditu konponketak, eta 24 milioi pezetako kostua izango dute.

Lehenbailehen obrak hasiko dira udazkenerako igerilekua gertu egon dadin. Kiroldegiko estruktura beste zati batzuetan ere kaltetua egon arren, barruko igerilekua da kaltetuen dagoena. Barruko igerilekua konponetzea erabakita argi dago kiroldegia zatika berritzearen aldeko apustua egin duela Udalak.

Atzorako plenoa deitu zen

Atzo, ostegunean, udal plenoa egin behar zen. Nahiz eta plenoak ostiraletan egiten diren, ezinezkoa zitzaiola eta, alkatordeak atzorako deitu zuen. Alkatea, Xabier Zubizarreta, oporretan dagoelako ari da Ino Galparsoro haren lekua betetzean.

Hile honetako plenoa ostiralerako deitu zen, baina PPko zinegotziaren bahiketa zela eta bertan behera geratu zen. Beraz, joan den ostiralerako prestatu zeuden gaiak erabaki beharko dira. Musakolan A-20 gunea izenez ezagutzen den tokiko sei enpresekin hitzarmena sinatzea erabakiko da gaurko plenoan.

Joan den ostiraleko plenoan lehenengo bi puntuak onartu ziren bakarrik. Bigarren puntuan Ismael Gonzalez, PSE-EEko zinegotzi berriaren kargu hartzea onartu zen.

JAIONE ETA IBAN EZKONDU

Lagun mordoa gonbidatu zuten Jaione Ibaibarriagak eta Iban Ayesak euren ezkontzara. Arantzazun ezkondu, eta ondoren Lasara joan ziren afaltzera. Ederto pasa zuten goizaldera arte luzatu zen eguna, baina hobeto pasako dute Keniara egingo duten bidaiari.




MANUEL ETA MARITXU 40 URTE BATERA

Gaur bertan 40 urte bete dira Maritxu Aranzeta eta Manuel Ibarra ezkondu zirela. Itziarren ezkondu, eta bazkaldu ere bertan egin zuten. Batek daki 40 urteak ospatzeko berriro ere Itziarrera joango ote diren!



Iturriotz kalea HALCON BIDAIK Iturriotz kalea, 23



ASTEBURURO ABENTURA BIDAIK!

PORT-AVENTURA

13.500 pta.
(Bakoitzeko)
Sarrera barne!

FUTUROSCOPE

22.600 pta.
(Bakoitzeko)
Sarrera barne!



Iturriotz, 23
ARRASATE
Tel.: 79 29 88



GARAION: EDERTO!

ZORIONAK DEIANE!

Uztailaren 16an, joan den asteazkenean, 14 urte bete zituen Deiane Pascualek. Ikusten denez orain dela urte batzuk atera zioten Deineri argazkia, baina lagunek horixe ekarri dute zorionak emateko. Zorionak beraz, zure lagunen partez.



Zoragarri pasatu dute Garaioko udalekueetan egon diren gaztetxoek. Arrasatearrak bakarrik ez, Getxoko, Bergarako, Aretxabaletako eta Hendaiaiko gazteak ere izan dira Txatxilipurdikoek antolatutako udalekuan. Izan ere mundialak dira Garaio-ko udalekuak.

DATA

1936-7-19

Francoren altxamendua gertatu eta gero, Arrasaten Defentsa Batzordea antolatu zen. Aipatutako Batzordean alderdi sozialistak hartu zituen iniziatiba eta erabaki gehienak. Batzordearen antolakuntza hilaren 19an izan bazen ere, hurrengo egunera arte EAJ ez zen bertan sartu, era horretan ordura arte erakutsi zuen jarrera neutralarekin bukatuz.

ZENBAKIA

210

gazte parte hartzen ari dira Txatxilipurdiren bigarren hamabostaldiko udalekue-tan.

Bigarren hamabostaldiko udalekuak uztailaren 24an bukatuko dira. 3eta 12 urte bitarteko gaztetxoek dute Txatxilipurdiren udalekue-tan parte hartzeko aukera.

Rent a Car

Alkilerreko autoak.
Eta orain

TRAFIC eta EXPRES

MECA

Tel.: 79 50 12 / 79 52 12

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDLIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak


Uribe Auzoa
ARRASATE
Tel.: 79 98 94

UZTAILEKO ESKAINTZA



PEUGEOT 106 LONG BEACH

3 ate
CD. 1.219.000 pta.tik.



PEUGEOT 306 BERRIA

1.663.000 pta.tik.



**PEUGEOT 205
DIESEL GENERATION**

1.321.000 pta.tik.



**PEUGEOT 406
TURBO DIESEL BERRIA**

2.445.000 pta.tik.


**Ikusi modelo hauek, eta bisitatu Okasioko Feria, uztailaren 14tik 21a arte.
100 auto baino gehiago ondo aztertuta eta garantia osoarekin!**

EKOMOBIL

Zaldispe, 2 (Ospitalaren ondoan)
Tel.: 79 50 71 / Tel.-Fax: 79 97 12
ARRASATE



PEUGEOT



Jose Manuel Corcuera eta Oskar Saiz Nikaraguan produkzio tailerrak antolatu nahi dituzte. Amaia Oregi, El Salvadorren egon zen brigadekin.

Elkartasun bidaiak

Postalen bestaldeko errealitatea

Jakin minak eta errealitatea ezagutzeko gogoak batzen ditu erreportai honetako protagonistak. Oporrak aprobetxatuta edo bizitzako zenbait urte eskainita, Hegoalde zapalduaren egoera zuzenean bizi nahi izan dute. Denek, Hego eta Ertamerika izan dute helburu. Batzuk han izandako esperientziak kontatu dizkigute, besteek egin behar duten bidaiaren zergatia.

JOSEBA ETXEBARRIA. VENEZUELA

1970ean heldu ziren Joseba eta bere emaztea Venezuelara. "Bertan bakarrik nekazal eskolak zeuden eta eskola profesionalak antolatzeko ideia asko gustatu zitzaigun. Ezkondu eta misiolari joan ginen". Valles del Tuy Caracas-etik 100km.ra dago. Bertan egon ziren Etxebarriarrak bost urtez. Denbora horretan, zenbait eskolatan lan egin, kooperatiba bat antolatu eta bi seme izan zituzten. "Semeak venezuelarrak dira.

Bata, Euskadi taldeko txirridulari profesionala da eta lasterketetan "hor doa Unai Etxebarria venezuelarra" esaten dute esatariek".

Bizitzako bost urte itsasoz bestaldeko bazterrean pasatzea ez da erraza, faktore askotara moldatu behar baita bizimodua eta pentsakera. Dena den, Etxebarriarrak argi zuten bost urteko egonaldia. "Lehenengo urtea hango bizitzara moldatzeko behar duzu. Bigarrenean hasten zara lanean eta hurrengoan etxera bueltatzeko

gogoia sartzen zaizu. Gure lana egiteko, bost urte gutxienekoak iruditzen zitzaizkigun".

Egonaldi luzeek euren alde onak eta txarrak dituzte. "Egonaldi motzetan ere laguntza eskaini daiteke eta ondo daude horrelako ekimenak, baina lan serio eta zehatz bat aurrera ateratzeko, denbora beharrezkoa da. Itzultzerakoan, dena utzitako egoera berberean aurkituko duzula uste duzu, eta ez da horrela izaten. Bi munduen arteko eten bat bezala egoten da".


Esperientziak, pena merezi izan zuela aitortzen du Josebak. "Irakatsi baino gehiago, ikasi egin dugu eta. Hango jendea oso ona eta lasaia da, laguntzeko beti prest. Odol berokoak dira, baina haserreak segituan pasatzen zaizkie. Ez dut ahaztuko ere, amarekiko duten mirespena". Itzultzeko asmorik ez dute, momentuz behintzat. Bitartean, Venezuelarekin lan egiten duen Abac GKE arekin kolaboratzen dute.

MARIA LUISA CABEZA. KOLONBIA

Abuztuan hartuko duen hegazkinak, Bogotáko aireportuan utziko du Maria Luisa. "Kolonbiarako brigadak antolatu dituzte Komite Internazionalistek lehenengo aldiz, eta herri kolonbiarraren ezagupen urria dela eta, bertara joateko erabakia hartu dut".

Hilabete baten, Bogotátik mendebaldeko mendikate osoan ibiliko da Maria Luisa. Bisitatuko duen lurraldea oso gatazkatsua da. Eskuadroei paramilitarrek biztanleak tirokatzen dituzte eta narkotrafikoa oso hedatua dago. Brigadisten lana *giza hesiarena* egitea da. "Hilketa ugari burutzen dituzte paramilitarrek, baina kanpoko jendearekin kontuz ibiltzen dira. Horregatik deitzen digute *giza babesak*, gu han gauden bitartean jendea seguruago sentitzen delako". Maria Luisak beldur apur bat sentitzen duela aitortzen du. "Orain arte joandako jendeari ez zaio ezer gertatu, nahiz eta batzuetan beldur handia pasatu".

Brigadisten lana, GKE edo beste talde batzuek egin dezaketenen desberdina da. Brigadek ez dute proiektu zehatzik garatzen. Lurralde behartsuen egoera ezagutzea da helburua. "Hirugarren munduaren esplotazioan gure gizartearen eta gobernuen implikazioak zeintzuk diren ezagutzuz,




Goian Valles del Tuy-en antolatu zen eskola profesionala. Behean, Joseba Etxebarria bertako urtegi baten.

"Paramilitarrek hilketa ugari burutzen dituzte baina, brigadistekin eta kanpoko jendearekin kontuz ibiltzen dira. Horregatik deitzen digute *giza babesak*, gu han gauden bitartean jendea seguruago sentitzen delako".
Maria Luisa Cabeza

gauzak aldatzeko ahalegina egin dezakegu hemendik".

Bidaia egin baino lehen tailer batzuetan hartzen dute parte brigadistek. "Lurralde bakoitzaren arazoak, egoera sozio-politikoak, e.a., aztertzen dugu, Hegoaldearen ikuspegi orokor bat izateko"-kontakten du Maria Luisak-. Taldekoak elkar ezagutu eta zenbait ariketa egiten dugu, benetan zertara goazen argi izateko". Kolonbiako brigada berria denez, Maria Luisa eta bere lagunek bertako organizazioekin harremanetan jartzea izan-



Hezkuntza lurralde behartsuen garapena bultzatzeko nahitaezkoa da.

go dute helburu. Bueltan ikusi behar gauzak nola joan zaizkien.

OSKAR SAIZ ETA JOSE MANUEL CORCUERA. NIKARAGUA

Jose Manuel orain dela bi urte egon zen Nikaraguan. Oskarrontzat, berriz, lurralde ezezaguna da. Biak Mugarik Gabeko Injineruen partaidea dira, baina oporretarako presatatu duten abentura euren kabuz egingo dute. Euren helburua zera da: tailer produktiboak sortuko dituen zentru bat martxan jartzea. Tailer produktibohoriek, Diriamba hiri nikaraguarraren inguruko asentamentuetan kokatuko lirake. "Informatika ikastaro bat emango dugu jendea hezitzeko eta posta elektronikoa jarriko dugu, eurekin harremanetan jarraitzeko" esaten du Jose Manuelek. Ordenagailuak hemendik eraman dituzte. Infrastruktura oso urria da baina bospasei lagunek oinarriko erabilpena ikasiz gero, lanpostuak sor daitezke. "Asentamentuak orain zazpi urte

sortu ziren. Baliabiderik gabeko jendea Diriamba inguruetan txabolak eraiki eta baldintza penagarrietan bizi zen. Lekuko erlijiosa bati esker, gutxieneko bizi baldintzak lortu dira" -kontatzen du Jose Manuelek- "baina jendeak lekaimearengan utzi du arduraguztia. Formazioa falta zaie euren garapen propioa egin ahal izateko".

Nikaraguako azken hauteskundeetatik, bertakoek *somozista*-tzat duten alderdiak, Alianza Liberal-ek, du boterea. Sandinisten lorpen garrantzitsu asko, osasun arloan, hezkuntzan, e.a. galduz doaz eta

langabeziak gora egin du. "Gure helburu nagusia, tailer produktiboez arduratuko den jende multzoa aurkitzea izango da eta formazio enpresariala jasotzeko prest dagoena Euskadira ekartzea".

Biek argi daukate lan zaila dela. "Errealitatea ezagutu, harremanak egin eta ezer gutxi egin ahal izango dugu hila bete batean -esaten du Oskarrrek-. Hala ere, gure proiektuak Arrasateko mentalitatetik ematen ditu irtenbideak eta akaso, ez dira Dirianbarako egokiak izango. Azkenean, eurek hartu behar dute inizatiba auzogunearen garapena bultzatze-

"Ez da dena Gobernu Kanpoko Erakundeen eskuetan utzi behar. Eurek hartu behar dute inizatiba garapena bultzatzeko. Beraiek izan behar dute euren historiaren eragile eta protagonista".

Oskar Saiz

ko. Beraiek izan behar dute euren historiaren eragile eta protagonista".

AMAIA OREGI. EL SALVADOR

Askapenak antolatutako brigadekin joan zen Amaia orain dela bi urte Chalatenangoko herri txiki batera. Hamaka batzuk besterik ez zituen txapazko etxetxo batean bizi izan zen, herriko jende gehiena bezala. "Egoera latzean bizi dira inguru hartakoak. Banketxean diru laguntzak eskatzen dituzte lurra erosteko eta erdia elektrizitatean gastatzen dute. Dirua itzultzea ezinezkoa gertatzen zaenez, jende asko lur barik geratzen da. Lurrak txarrak dira, mendian daude eta ureztatzeko ura baldetan eraman behar dute". Eguneroko bizi-tzan, hala ere, jende jatorra da. "Daukaten apurra eman egiten dute eta oso humanoak dira. Ez dute jendea bere jatorri, kolore edo diruagatik sailkatzten. Denak pertsona bezala hartzen dituzte".

Amaia, pozik ibili zen batez ere mutikotxoekin. "Ez zuten futbola ezagutzen eta partiduak antolatzen nituen. Hasieran arraroa iruditzen zitzaien, hango neskek beisbolean jokatzten dutelako. Gurekin zegoen mutil batek bere arropak iturrian garbitzen zituenean bezala, hori emakumeen lana delako."

Gerraren ondorioak nabariak dira El Salvador-en. "Emakume asko alargun geratu zen gerran edo eskadroiekin bortxatu zuten. Seme-alabak bakarrik atera behar dituzte aurrera. Langabezia eta lur faltagatik oso zaila da bizitza eta gizon asko alkoholismoan erortzen da"

Dena den, bizitzak aurrera egiten du eta Amaiak dioten bezala, arazo eta estutasun guztien gainetik zoriontsu izaten ahalegintzen den jendea geratzen da.

Marian Porcel



Regionaletik preferentera pasa da hainbat jokalar. Horietatik batzuk goiko taldean jokatuko dute.

Aurrendenboraldia prestatzen hasi da Mondra

Preferente mailako Mondrak astelehenean egin zuen aurrendenboraldiko lehen entrenamendua. Aste honetan lau bider elkartu dira eta abuztura arte 8 bat entrenamendu egingo dituzte. Ondoren 18 egun jai eta berriro lanari ekin behar. Talde honentzat 97-98 denboraldia irailaren 7an hasiko da. Benetako liga hasi arte lagun arteko pare bat neurketa jokatuko dituzte. Bi partidu ziurtatuta daude, Zarautz eta Gasteizko Bruño Villarrealen kontrakoak. Aurten iaz bezala preferente mailan 20 talde izango dira: Mutriku, Uda, Zestoa, Anaitasuna, Roteta, Hondarribia, Oiartzun, Lazkao, Ordizia, Pasaia, Zarautz, Real Union, Beti Ona, eta Beti Gazte. Hirugarren mailatik jeitsi Aloña Mendi eta Urola egin dira; regionaletik igo berriz, Euskalduna, Eibar eta Trintxerpe.

Jokalariei dagokienez, ez dago nobedade handirik. Dagoeneko jakina da Pildain,

Areitio eta Aranburuzabala ez daudela taldean. Esparzak jarraitu edo ez ikasketen araberako egongo da, eta beste zalantza bat Gonzalo Espel. Gainontzekoek Mondran jarraituko dute beste urte betez gutxienez. Goiko taldearekin batera erregionaleko jokalariek hasi dira aurrendenboraldia prestatzen. Horien artean batzuk goiko taldean gertatzeko aukera izango dute, baina hori hilabete bukaera arte ez da argituko.

TALDEAK ETA ENTRENATZAILEAK

Aurten Mondra kirol elkar-teak zazpi talde izango ditu: Preferenteko entrenatzailea Jesus Mari Barrutiabengoa izango da; lehen jubenil taldekoa Neka Galan; bigarren jubenilen ardura Unai Rubiok eta Ibai Madariagak izango dute; lehen kadeteena Juan Luis Arkauzek; bigarren kadeteena Jon Zubiak; infantilen arduradunak Dabid Zai-

tegi eta Jose Ramon Arkauz; azkenik, emakumeena Juanina Garaik. Datu moduan aipatu behar, aurten infantilek Ohorezko ligan jokatuko dutela. Talde honek maila horretan jokatzen duen lehen urtea da. Ohorezko ligan aurreriko sendoak izango dituzte arrasatearrek, besteak beste, Reala, Antiguoko, Tolosa, Lagun Onak, Eibar, Añorga, Urola eta Elgoibar. Ez da samurra izango mailari eustea baina ahalik eta lan onena egiteko ilusioz hasiko dute denboraldia.

Infantilen denboraldia irailaren 28an hasiko da, lehen eta bigarren kadeteena 21an, eta jubenilena irailaren 14an.

Futbolarekin bukatzeko, Nedza Zivojevick hiru urtetan Mondra elkartean lan desberdinak egiten ibili ondoren, taldea utzi du. Hemendik aurrera Bosniako entrenatzaileak ez du inolako loturarik izango Mondra kirol elkar-tearekin.

Arrasateko atletak Euskadiko txapelketan

Atletismoko Euskadiko txapelketa jokatuko zen asteburuan Durangon. Bertan Euskadiko atleta onenak egon ziren, eta tartean Arrasate Kirolakekoak. Txapelketa honetan parte hartzeko gutxienezko denbora izatea behar beharrezkoa da eta hori Arrasateko lau atletek zuten. Unai Sarabiak 100 metroan, Aitor Urizarrek mailu jaurtiketan, Asier Fernandez de Arroiabe disko jaurtiketan eta modalitate berean Mikel Iturbek. Azken honek ez zuen parte hartu lan arazoak izan zituelako. Batz bestea eta txapelketa horretan egoten den maila ikusita, arrasatearrek maila bikaina erakutsi zutela aipatu behar.

Emaitzak 100 metroan

Unai Sarabia 11''37
(4. postua)

Mailu Jaurtiketan

Aitor Urizar 43'98 (5. postua)

Disko jaurtiketan

Asier Fdez. Arroiabe
40'66 (7 postua)

Makatzena Pilota txapelketa

Azken astetan buru belarri lehiari ibili ondoren, Makatzeko pilota txapelketako finalak jokatuko dira zapatu honetan Obenerreka frontoian. Arratsaldeko 3etatik aurrera aurrebenjamin, benjamin, alebin, infantil, jubenil eta afizionatu mailako pilotarien finalak egongo dira jokoan.



C. Canas Esteban arerio barik Gasteizen

Construcciones Canas Esteban bigarren aldiz Gasteiz Cup txapelketaren irabazle atera da alebin mailan. Arrasatearrek finalera heldu arte bost neurketa jokatu behar izan zituzten. Donostiako Elejalde taldearen kontra 8 eta 1 nagusi ziren. Bigarren aurkaria Rayo Majadahonda, 12 eta 1 Arrasateren alde. Gasteizko Corazonistas taldearen kontra 8 eta 1 nagusi ziren. Final laurdenetan Salvatierra izan zuten aurrean eta 15 eta 0 nagusi

zitu zen. Ondoren final erdiak Corazonistas taldearen kontra, 6 eta 1 azken emaitza. Finalean Canas Esteban eta Madrilgo Soto. Arrasateko ordezkariak 7 gol sartu zituzten bitartean Soto birekin konformatu behar. Taldeko jokalaririk osatzen dute: J.A. Ormaetxea, Andoni Andres, Mikel Gonzalez, Iker Orueta, Jon Del Campo, Mikel Makazaga, Asier Sanchez, Maikel Hernandez, Josu Etxebarria eta Julen Zaitegi.



Arkupe Joma taldea Makatzenan onena

Azken hilabetetan Makatzenako futbito txapelketa jokatzen ibili ondoren, zapatuan final handiaren eguna izan zen. Alde batean Arrogio taberna eta bestean Arkupe Joma. Norgehiagoka lehiatsua izan bazen ere, Arkupe erraz nagusitu zen 6 eta 1. Talde irabaz-

lea Gregorio Palaciosen zuzentzen du eta honako hauek dira jokalaria: Aitor Urrutia, Beñat Otxoa, Beñat Barbarena, Pello Errarte, Markel Ansoategi, Jon Ansoategi, Gorka Eraña, Joseba Palacios, Jokin, Oier Arregi, Jokin Amasorain eta Unai.

24 ordu futbitoan Iturripen

Zapaturako 24 orduko futbito maratonia antolatu da Iturripen. Eguerdiko 12etan hasi eta domekako eguerdiko 12a

arte hainbat neurketa jokatu da. Azken orduan talde onenek indarrak neurtuko dituzte finalen.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76


“Mugarik gabeko gazteak” VIII. Argazki lehiaketarako gaia

Kultura aniztasuna eta herrien arteko elkartasuna adierazten duten argazkiak sarituko dira ASA Argazki Taldeak, Gazteria Sailak eta Emakume Sailak antolatutako VIII. Argazki Lehiaketan. “Mugarik gabeko gazteak” leloarekin laburtu nahi izan da aurtengo gaia.

Argazkiak, koloretan edo zuri-beltzean aurkez daitezke. Gehienez hiru argazki onartuko dira eta guztiak lema batez sinatu behar dira.

OHIARTZUN HANDIA

Arrasateko argazki lehiaketak, bere lekua egin du beste batzuen artean. Izan ere, kanpotarren partaidetza urtetik urtera goraka egin du eta estatu osoko lurraldeetatik bidaltzen dituzte lanak. Jayi Luengok, ASA taldeko partaideak eta lehiaketako epaimahaikideak iazko esperientzian oinarrituta partaidetzaz berba egin du. “Badirudi lehiaketa eza-guna egin dela herritik kanpo. Madrildik, Andaluziatik eta beste leku batzuetatik bida-



1993. urteko irabazlearen argazkia. Egilea, Juan Jesus Huelva.

litako argazkiak jaso genituen iaz. Partaidetza handia eta kalitate ona izaten du lehiaketak”. Iazko argazki gehienak zuri-beltzean eginikoak izan ziren baina, tratamendu berezikoak ere-pintatuak, solarizatuak, e.a.- aurkeztu

ziren. Epaimahaia, ASako partaideek eta argazkilari profesionalek osatzen dute. Argazkilaritza espresio bide bezala hartuta, argazkilariak gaia nola ulertu eta nola espresatzen duen baloratuko da. Bestalde argazkien kalitatea

kontuan hartuko da. Ondo aterata dagoen ala ez, konposizioa, orijinaltasuna, e.a.

EMAKUME SAILAREN SARIA

Emakume Sailak sari berezia emango du aurtengo edizioan. Sari hau, 40.000 pezeta-koa, emakumezkoen ikuspuntua edo bere errealitatea ondoen isladatzen duen argazkiari emango zaio.

Urtero bezala, bi kategoriatan banatu dira sariak. Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazte onenari 20.000 pezeta, eta 19-35 urte bitarteko argazkilari onenari 50.000 pezeta, bai zuri-beltzean bai koloretan aurkezten dutenentzat.

Lanak aurkezteko epea, urriaren 10ean bukatzen da.

Esaten den bezala, argazki onak atera behar lehiaketa irabazteko. Maila altua da eta argazkilariek euren onena atera beharko dute. Besteok, esfortzuaren emaitzak ikusi ahal izango ditugu argazki guztiekin Harresi aretoan egingo den erakusketan.

M Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABAETA
Tel.: 79 08 07

ORTO + LAGUN
O R T O P E D I A
ZU LAGUNTZEKO GAUDE!

- Plantilla bereziak, behar bakoitzari erantzunez
- Aluminiozko gurpil aulkiak: arinak, tolesgarriak eta elektrikoak
- Bizkarreko minak kentzeko gerrikoak

Lagun-Aro-ko errezetak hartzen ditugu.
Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!
Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

Zuri Garbiketak

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

ITXARO ARTOLA, AEDko kultur dinamizatzailea

“Lehiaketa berrietara aurkeztera animatu gura dugu jendea”

AEDk Arrasate 97 Lehiaketak eta Jokin Zaitegi Itzulpen laburren sariketa aurkeztu ditu aste honetan. Genero guztietan parte hartzeko aukera izango da lanak AEDko lokalean urriaren 31 baino lehenago aurkeztuz gero.

- Bi lehiaketa ezberdin antolatzen dira. Biak helburu berdinarekin?

- Jokin Zaitegi sortu zen momentuan hutsune bat zegoen itzulpengintzan. Lehiaketaren bidez, atzerriko hizkuntzetan lantzen diren gaurkotasunezko gaiak edo gai teknikoak euskaraz ere lekua egin nahi zaie. Arrasate 97 lehiaketekin ere, esparru bat zabaldu nahi zaio euskarari baina sormena bultzatuz.

- Jokin Zaitegiko partaidetza filologo eta aditueta mugatzen da?

- Edozeinek har dezake parte. Lana ez da luzea, beraz aukeraturako gaiari eta itzulpenaren kalitateari begiratzen zaio. Euskal Herri osotik jasotzen dira itzulpenak eta oso maila ona izaten dute. Azken urteetan Unibertsitateko Uztaro aldizkarian kaleratu izan dira erakutsi duten mailagatik. Horregatik, aurten bi sari emango dira. Bakarra ematea injustua gertatu da urte askotan.

- Arrasate lehiaketetan gai ezberdinak sartu ziren iaz.

- Bai, euskararen erabilera beste arlo batzutaraz zabaldu nahi izan genuen eta komikia, eskualdeko euskararen testigantza, antzerkigintza eta ikus-entzunezkoen gidoigintza lehiaketak antolatu genituen. Komikira izan ezik, besteetara ez zen inor aurkeztu baina aurten berriro saiaturako gara. Itxura baten izenburuak atzera



botatzen du jendea, baina arauak irakurriz gero gauza erraza dela konturatu daiteke. Gainera arlo teknikoari ez zaio gehiegizko garrantzia emango, ideiak eta orijinaltasuna baloratuko dira.

- Jende nagusien lan gutxi aurkezten da. Nola animatuko zenituzke?

- Askok umeendako lehiaketak direla uste dute. Bestalde, eskolatik kanpo, jendeak idazteko ohitura galtzen du. Iaz, gaztetxoek 118 ipuin bidali zituzten eta 17 urtetik gorakoek lau besterik ez. Hemendik esan, lanak ez direla luzeak eta aprobetxa dezatela oporrak gustoko lehiaketan parte hartzeko.

- Lehiaketek bete dute bilatzen den helburua?

- Euskaraz sormena bultzatzeaz gain, lanak ere kaleratu egiten dira. Urtero liburu bat argitaratu da lanak ezagutzera emateko.

aste gazte

■ LANA

• Zizurgo Udala zuzenbidean lizentziatu baten behar dago. Epea: uztailak 23.

• Tafallako Udalak gizarte graduatu bat behar du. Epea: uztailak 27.

• Enkarterrietako Udal Mankomunitateak, informatika teknikari bat, gizarte laguntzaile bat eta administrari laguntzaile bat behar ditu. Eskariak aurkezteko epea zehaztu gabe dago.

■ BEKAK

• Eusko jaurlaritzak, garapen lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko bekak deitu ditu. Epea: urriak 1.

• Euskadiri buruz entseiluak egiteko bi beka deitu ditu Talaia Fundazioak, bakoitza 250.000 pztakoa. Epea: irailak 5.

■ IKASTAROA

• Iruñako Urtxintxa taldeak, abuztuak 25ean hasi eta irailak 30a arte, denbora libreko begirale titulua ateratzeko ikastaroa antolatu du.

■ LEHIAKETAK

• Nafarroako Gobernuak, Igo Eskultura Saria argitaratu du, materiala eta gai librean. Epea: urriak 6tik 17ra.

• AED Elkarteak, XI. Jokin Zaitegi itzulpen laburren sariketa antolatu du. Epea: urriak 31.

• Honekin batera, Arrasate 97 lehiaketak ere antolatu ditu, ipuina, poesia, bertso papera, komikia, eskualdeko euskararen testigantza, antzerkigintza eta ikus-entzunezko gidoigintza alorretan. Epea: urriak 31.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

Gai batzuen izenburuak atzera botatzen du jendea, baina ez da hainbesterako

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Soraluzen apartamendua salgai. Tel.: 79 50 71.

• Musakolan etxebizitza salgai. Tel.: 77 13 02.

• Etxebizitza salgai Makatzenan. Tel.: 79 75 31. Gaeuz deitu.

• Eskoriatzan ia berria dagoen apartamentua salgai. Bi logela, egongela eta ganbara. Jantzita. Tel.: 71 52 78. Gaueko 9etatik aurrera

3. Errentan emateko

• Peñiskolan pisua alokatzen da uztaila eta irailean. Tel.: 79 57 31.

• Udako hileetan Santa Polan (Alicante) bungalow-a eta Torreveijan apartamentua alokatzen dira. Hondartzatik eta herritik gertu. Tel.: 79 32 54 / 79 26 55.

• Alakanten lorategia daukan txaleta alokatzen da uztailan eta abuztuan. Interesatuek dei egin 79 40 01.

• Torreveijan 4 edo 6 lagunendako apartamentua alokatzen da. Igerilekua eta garbigailua ditu. Hondartzaren ondoan dago. Prezioa: 1.500 pta. egunean pertsona bakoitzeko. Tel.: 79 53 18.

• Laredon apartamentua alokatzen da abuztuaren azken astean eta irailean. Tel.: 79 31 47.

• Pisua alokagai Erdiko kalean. Tel.: (948) 55 30 83.

4. Errentan hartzeko

• Ikasle gazteak pisu bila. Eskola inguruan bada hobe. Tel.: 74 09 23. Mikel.

• Lau lagun pisu bila gabiltza. Tel.: 73 40 08.

• Pisua alokatu nahi dugu Arrasaten. Gurekin etxe hori alokatu nahiko lukeen bi edo hiru lagun ere behar ditugu. Tel.: 88 52 71. Oihana.

• Lau gelako pisua behar dugu Arrasaten. Tel.: 46 01 23. Aitor. Iluntzean deitu.

• Abuztuan Torreveijan apartamentua alokatu nahi dut. Lehenengo hamabostaldian. Tel.: 79 57 79.

5. Etxe konpartituak

• Emakume heldua behar da igogailua duen pisua osatzeko. San Andresen. Dei egin arratsaldeko 8etatik 9eta-

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

ra 77 04 60 telefonora. Margari.

• Arrasaten pisua konpartituko nuke gela bat alokatuz. Tel.: 51 32 40. Tito.

GARAJEAK

7. Saldu

• Munarren garajea salgai. Tel.: 79 44 07.

• Roneoko etxebizitzetako lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

• Musakolan garajea salgai. Tel.: 77 13 02.

• Garajea salgai Erguin kalean. 22 m². Prezio interesgarria. Tel.: 79 18 70.

Garajea salgai edo alokagai San Andresen. 75 m². Tel.: 79 13 52.

9. Errentan emateko

• Aldaigainen garajea alokatzen da. Tel.: 79 51 93.

• Munarren garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 97 03.

• Roneoko etxeetan garajea alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

LOKALAK

12. Saldu

• Iparragirre kalean (Grupo San Juan) berrituta dagoen beheko solairua salgai. Zerbitzutarako egokituta dago (kontsulta, itxaron gela...) Tel.: 79 52 17.

LANA

17. Eskaintzak

• Neska euskaldunak denda baten lan egin edo umeak zainduko lituzke. Tel.: 79 74 76.

• Neska euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 58 22.

• Emakumea gertu orduka etxeak garbitzeko. Tel.: 77 06 74.

• Abuztuan pertsona nagusiak zainitzeko gertu. Orduka edo egun osoz. Tel.: 79 45 87.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zainitzeko. Tel.: 79 07 73.

18. Eskaerak

• Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 45 73. Iluntzeko Betatik aurrera.

• Neska bat behar da etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 22 92.

• Datorren kurtsuan ingeleseko klaseak emateko pertsona bat behar da. Tel.: 79 09 11.

• Esperientziadun jostuna behar da denda baten lan egiteko. Tel.: 909 27 40 95. Goizez dei egin.

• Esperientziadun neska behar da abuztuan ileapaindegi baten lan egiteko. Tel.: 79 22 59 / 77 00 56.

• San Viator ikastolak 97-98 ikasurterako goi-mailako injinerua behar du. Informatikoa izanez gero hobe. Euskara jakitea ezinbestekoa da. Bidali kurrikuluma Arrasateko 90. posta-kutxatilara.

19. Bestelakoak

• Lanak euskaratu edota ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 74 76.

• Euskaraz, gastelera eta ingeleseko itzulpenak egiten dira. Tel.: 79 79 12. Mila.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Magisteritzan diplomadunak uztailan klase partikularrik emango lituzke. Tel.: 79 35 24.

• OHO eta DBHko klase partikularrik ematen ditut. Esperientzia eta merke. Tel.: 79 47 35.

• Neska euskaldunak udan klase partikularrik emango lituzke. OHO, REM, edo BUP. Tel.: 79 51 19.

• Ingeleseko klase partikularrik ematen dira uztailan. Tel.: 79 79 12.

• Uztailan BBBko bigarren mailara arteko klase partikularrik emango nituzke. Tel.: 79 86 06. Itziar.

• Irakasle esperientziadunak klase partikularrik ematen ditu. Tel.: 79 74 76.

• Euskaraz zein erdaraz klase partikularrik ematen ditut. Tel.: 77 04 98.

• Esperientziadun neska batek klase partikularrik emango lituzke, euskaraz nahiz erdaraz. OHO, UBI. Tel.: 79

86 06.

• Biologiako laugarren mailako ikasleak klase partikularrak emateko gertu uztailean eta abuztuan. Tel.: 79 82 42.

• UBira arteko klase partikularrak ematen dira. Euskaraz eta erdaraz. Tel.: 79 46 75. Amaia.

• Euskal filologiako ikasleak uztailean, euskara, er1dara eta ingeleseko klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 29 20. Saioa.

• Injenerutza kimikoak matematika, marrazketa, kimika eta fisikako klaseak emateko gertu. Tel.: 79 25 85.

• Esperientziadun neska klase partikularrak emateko gertu. Euskaraz nahiz erdaraz. Tel.: 79 28 61.

• Ingeléseko klase partikularrak emango nituzke uztailean eta abuztuan. Tel.: 77 02 74. Ane.

• Injenerutzako bi ikasle matematika eta fisikako klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 33 39. Aimar eta Unai.

21. Eskerak

• Soziologiako 1. mailako estatistikako klase partikularrak hartuko nituz-

ke udan. Presazkoa da. Tel.: 79 38 48.

• Kontabilitate eta matematika finantzieroko klase partikularrak behar ditut. Tel.: 79 48 99.

• Irailaren 8tik 26ra arte frantzeseko klase partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 79 30 39.

MOTORRA

23. Saldu

• Adria 410 TD karabana salgai. Uda eta negurako guztiz jantzita dago. Tel.: 79 66 09.

• Ford Orion salgai. SS-AF. 87.000 km. Egoera onean. Tel.: 79 96 56. Gaueko 9etatik aurrera. Iban.

• Ford Scort 1.3 salgai. SS-T. Egoera onean. Prezioa: 120.000 pta. Tel.: 79 56 82.

• Ford Orion GLD 1.600 salgai. 300.000 pta. negoziagarriak. Tel.: 76 71 12.

• Opel Corsa TR 1.200 autoa salgai. Merkea. Tel.: 79 79 92.

• Dervi Vamos motorra salgai. Tel.: 79 73 42. Beatriz.

• Bi motor salgai. Suzuki DR Big 50. Prezioa: 60.000 pta. Tel.: 79 34 14. Aitzol.

DENETARIK

26. Saldu

• Estreinatuta barik dagoen sofa-ohea salgai. 120 zm. Prezioa ona. Tel.: 79 14 84.

• Arrazadun behor gazte bat salgai. Tel.: 79 46 75.

• IBM 425 SX ordenagailua prezio onean salgai. Tel.: 79 49 34.

• Erreformagatik solarium profesionala saltzen da. Egoera onean. Tel.: 79 72 56.

• Lur hiztegi enziklopedikoa salgai. Tel.: 79 78 26.

• Kanping karroa salgai. Prezioa: 50.000 pta. Tel.: 77 04 61.

• Ciclon Plus aspiragailua salduko nuke. Erreferentzia: AM-510- Fagor. Tel.: 79 50 96. Alberto.

• Super Nintendo bideo joko salgai. Hiru joko ditu eta oso merke salgai. Tel.: 79 79 53. Iñaki.

• Logela osoa salgai. Sofa eta koltoia opari. Tel.: 79 45 87.

• Bigarren eskuko akordeoia salgai. 96 baju eta egoera onean. Atrila eta eramateko karrotxoa batera saltzen da. Tel.: 79 73 18. Ikeme.

31. Galdu

• Erlojua galdu nuen San Juanetan. Larunbatean izan zen. Tel.: 79 30 62.

32. Aurkitu

• Urrezko katea aurkitu nuen Muxibar parean. Izena eta data dauko. Tel.: 79 17 68. Gaueko 8etatik aurrera.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Somorrostro (Muskiz) edo inguruan ikastera doan jende bila nabil. Tel.: 79 98 28.

36. Deialdiak

• Copa Aprilia RS-50 moto txapelketan parte hartzeko babeslea behar da. Tel.: 79 92 95.



LORAMENDIN



SALOMON®



Abenturaren bila!



■ **Horoskopoa**

- **Aries** Tailerrean konponduko dizute buruan duzun kolpea.
- **Taurus** Lagunek bidaltzen dizuten esku-titzak erantzuteko dira.
- **Gemini** Udan ez aspertzeko liburu on bat erosi beharko zenuke.
- **Cancer** Detektibe lanak alde batera uztea komeni zaizu.
- **Leo** Musika entzutea. Hori al da zuretzat lan egitea?
- **Virgo** Oso arraroa zara. Euria egiten duenean hondartzara joan?
- **Libra** Duela urtebete ezetz esan zenion, eta orain damututa zaude.
- **Scorpio** Lagunen gomendioak ez dira beti zintzoak.
- **Sagitaris** Niki zatar hori ez duzu inoiz gainetik kenduko?
- **Capicorn** Zentzuduna zara baina komeni zaizunean bakarrik.
- **Aquarius** Esperantza ez da inoiz galdu behar. Ez ahaztu!
- **Piscis** Iparrak balduta zabilta, baina laster kokatuko zara.

■ **Gurutzegrama**

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10			11				
12		13			14		
15					16		
17						18	19
20					21		

JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1.Marga, Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeko irakaslearen abizena. 9. Oboea jotzen duen musikaria. 10. Musika-eskalako seigarren nota. 11. Iel jarri. 12. Ogiá egiten duen pertsona. 14. (Ald.)Sugarra. 15. Kirats. 16. Radioa. 17. Gauza zein pertsona bat zuzen eta erori gabe mantentzearen egoera. 18. Bi erromatar erara. 20. Etiopiako lakurik handiena. 21. Euzko Nekazarien Alkartasuna.

Bertikalak 1.Porrot. 2. Ebakitzeo era. 3. Alfabeto grekoko hamazazpigarren letra. 4. Keinu eginez. 5. Gehiegi edan ondoren gorputzean sentitzen den ondoeza. 6. EEBBeko moneta-unitate nagusia. 7. Gipuzkoako udalerrria. 8. Kataluniako hiria. 13. Irendu dena. 19. Kasik.

19. Ia.
Bertikalak: 1. Molokot. 2. Ebakera. 3. Ro. 4. Keinuka. 5. Aje. 6. Dolat. 7. Elduain. 8. Reus. 13. Iren.
Horizontalak: 1. Merkader. 9. Oboejole. 10. Ta. 11. Ieldu. 12. Okin. 14. (Ald.) Sua. 15. Kern. 16. Ra. 17. Oeka. 18. II. 20. Tana. 21. ENA.



Aldibi Autoak, S.A
 Zigorrola, 1
 ARRASATE
 Tel.: 71 20 02
 Faxa: 79 65 65

Hau da zure jendea, hau da zure etxea

Hemen zure amets guztiak egon daitezke.



Volvo

Auto Suecia, S.A.



Mercedes

Izar Autoak, S.L.



Hyundai

Musakola Autoak, S.L.



Chrysler

Co-Car, S.A.



Mazda

Musakola Autoak, S.A




Nissan

Aldibi Autoak, S.A

■ Jose Ramon Arkauz

SUDCEKO LEHENDAKARIA



1. Zein da zure horoskopoa? Leo.

2. Sinestuna zara? Bai, nire erara.

3. Animalia bihurtzekotan? Bat ere ez.

4. Zure akats bat/gauza on bat?

Buru gogorra naiz/kostantzia.

5. Zerk lotsarazten zaitu? Errespetu faltak.

6. Amets bat?

Berdintasuna.

7. Zer kenduko zenuke mundutik? Hipokresia.

8. Gertakizun historiko bat?

Ikurriña Arrasateko Udaletxean ipini zutenean.

9. Nor miresten duzu? Arazorik ez duen pertsona.

10. Zeri diozu beldurra? Injustiziari.

11. Zertaz damutzen zara? Ezertaz.

12. Negar egin duzun azken aldia?

Anaia Fresnesen zein egoeran zegoen ikusi nuenean.

13. Zer falta zaio Arrasateri?

Ganorazko frontoia.

14. Eta zuri? Denbora.

15. Lanbidez aldatzekotan? Pozik nago

nire lanean.

16. Arrasateko gustoko toki bat? Bedoña.

17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? SUDCeko lehendakaritza utzi.

18. Zein egunkari irakurtzen duzu? Egin.

19. Gustoko janari bat? Baba gorriak

20. Liburu on bat? *Dos damas muy serias*, Jane Bowles.

21. Filmerik onena/txarrena? *La misión*/ Zientzia fikziozko edozein.

22. Musika talderik onena/txarrena?

Mondragon Brass/ Bakalau musika.

23. Telebistako programarik onena/txarrena? *Mondrasport*/ Bueno....

24. Egin dizuten oparirik politena? Petaka bat.

25. Denbora librea zertan pasatzen duzu? Pasiatzen, irakurtzen...

26. Oporretarako toki bat? Baztan.

27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Plantxa.

28. Gomendio bat? Legala izatea.

29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Familiagatik.

30. 200 milioi irabaziz gero? Batzuren artean banatu.

Denek ezagutzen dute Arkauz. Egia esan, SUDC-en sartu zenetik, lehenengo idazkari bezala eta azkenengo sei urteak lehendakaritzan, herrian antolatzen diren ekintza gehienen antolakuntzan murgilduta ibili da. Hobeto ezagutzeko asmoz, hurrengoko galderari erantzun digu.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55



Recreacion eta J.D. Mondragon taldeen arteko hirugarren mailako partidua iragartzen zuen argazkiko kartelak, Monte tabernaren aurrealdean jarrita zego-

nak. Izan ere, 1950. urte inguruan hirugarren mailako taldea zen Mondra. Kartelaren aurrean, argazkilariari begira eta argazkia noiz atera zain daudenak, Monte tabernako zerbitzariak eta bertako bezero bat dira. Ezkerrekoa Maria

Rosa Agirreurreta da, bere ondoan dagoena Maria Luisa Lizarralde, gizonetzkoa gaur egungo bake epailea, Joseba Arregi, eta eskumakoa Karmen Mendiarratx. Itxura denez, argazkia orduko San Juanetan ateratakoa izan daiteke.

Urtea: 1950.
Argazkia: J. M. Lasagabaster.
Informazioa: Joseba Arregi.

DISCO-BAR



Zure KAMISETA jasotzera pasa zaitezke uztailak 31 baino lehen.

ZORIONAK!

Saritutako zenbakien zerrenda tabernan bertan daukazu.

Zarugalde, 17 behea • ARRASATE
Tel.: 79 20 29

NATURAL FASHION

Gizon, emakume eta umeendako arropa **NATURALENAK.**
Alerjiarik ez!
MODARA JOATEKO INGURUGIROA ERRESPESTATUZ.

Dendaraba • GASTEIZ • Tel.: (945)14 27 58

AZKENEAN, HELDU DIRA OPORRAK!

BAINA, **DENONDAKO** OTE DIRA?

Badaude, egun bateko oporrak ere hartzen ez dutenak eta extrarik kobratzen ez dutenak. Urrutira joan beharrik ez dago egoera hau ikusteko; **zeure etxean edo inguruan daukazu adibidea.**

Oporrak denok merezi ditugulako, **bana dezagun etxeko lana, guztiona da eta!**



Emakumeok ere **oporretan!**



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■

IKUSI BEHAR SINESTEKO.

uztailaren 31a arte

ASTRA MERIT 1.6i

bat dago

1.623.000 Pta. gatik

PREVER PLANA ETA DESKONTUA BARNE

JOAN AGUDO ZURE KONTSEZIONARIOAN IKUSTERA ETA SINESTU.



AIRE GIROTUA DOHAINIK EDO DESKONTU BALIOKIDEA.

SERIEKO EKIPAMENDU EZ OHIKO BATEKIN:

AIRBAG ► LAGUNDURIKO DIREKZIOA ► ITXIERA ZENTRALIZATUA
► KRISTAL-JASOGAILU ELEKTRIKOA AURREALDEAN ► ALBOETAKO
BABES BARRA BIKOITZA ► 6 BOZGORAGAILU IRRATI CASSETTE
STEREOA ► LAPURREN KONTRAKO INMOBILIZATZE ELEKTRONIKOA
► MULTIFUNTZIO PANTAILA: IRRATI DIALA, TENPERATURA ETA ORDUA

Merit 1.6i 3p fabrikatzaileak gomendatutako prezioa. Garraioa, BEZ, matrikulatze zerga eta promozio deskontua barne. arikulazio gastuak kanpo. Stock-a bukatu arteko eskaintza berezia penintsulan eta Balear irletan. Prever plana barne.

OPEL 
ALEMANIAR INJENERUTZA ZURE ESK

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa, z/g. Tel.: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Araba Etorbidea, 3.(Escatu pabilioia). Tel.: 79 05 86

OPEL KONTSEZIONARI OFIZIALAK. HOBEAK.